

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

311 - 2023ko OTSAILA

IHOTEEK NEGUA
KOLOREZTATU DUTE

IHOTEAK ARAXESEN

Otsailaren 3an, ostiralarekin, Araxes Ikas Komunitateko lagunok inauteriak ospatu genituen.

Aurtengo gure mozorroak euskal inauterietan oinarritu ziren, eta besteak beste, honako hauek irudikatu genituen:

- HH, "Tolosako diana"
- LH1-LH2, Tuterako "zipoteroak"
- LH3-LH4, Berako "inudeak eta artzainak"
- LH5-LH6, Lantzeko pertsonaiak
- DBH1, Beteluko "ñañarroak"
- DBH2, txikien laguntzaile.

Urtero bezala, goizeko bederatzietan gelan elkartu eta mozorroaren azken ukituak egiteko denbora izan genuen, baita jolasteko, dantzatzeko edota maila ezberdinetako kideak elkartzeko ere. Ondoren, Guraso Elkarteak prestatutako ogitarteko goxoak dastatu genituen.

Tripa bete ondoren, 11:30 aldera herriko enparantzan elkartu eta bi taldetan banatuta (HH, LH1-LH2 batean, eta LH3tik DBH2-ra bestean) "Beteluko ingurutxoak" dantzatu genuen bi ama txistularien laguntzaz.

Giro ederra izan genuen, eguraldi ona egiteaz gain gu dantzatzen ari ginen bitartean gurasoak, herriko jendea, aiton-amonak, etab. hurbildu baitziren gu



ikustera. Dantzatzeaz amaitu genuenean, pixkanaka-pixkanaka, musikak alaiturik, ohiko ibilbidea egin genuen herrian zehar.

Eskola pareko biribilgunera iristean, HH eta LHko ikasleak taldeka elkartu eta Miel Otxinen poltsikoetan "desagertzea nahi genuen gauza txarren zerrenda" sartu genuen, berarekin batera erre zedin. Gero, borobilean eseri ginen, DBHkoek "Beteluko karrika dantza" biribilgunearen erdigunean jarritako Miel Otxinen inguruan nola dantzatzen zuten ikusiz. Dantza amaitzean, guztiok borobilean arin-arin eta fandagoa dantzatu genituen Miel Otxin erretzen ari zen bitartean.

Dena giro alai eta goxoan, ingurua kolorez bete eta alaituz, biharamuneko Beteluko inauterietarako beroketa eginez.

Eskertzekoak dira, Aitor Goikoetxea eta Idoia Garmendiak ikasleekin eta herrian, eskuzabaltasun osoz, aurretik egindako lana dantzak irakasten. Bejondaizuela!

Orain bai, emozioz beteriko egun eder horri amaiera emanaz, hurrengo urteko inauterien esperoan gelditzen gara!

LH5eko ikasleak



· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:
Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzti eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:
Maillope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:
Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza, Haritz Legarreta eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:
Maddi Soroa, Mikel Uharte, Haritz Larrageta, Arantxa Mikeo, Juan Antonio Garaikoetxea, Aitziber Lopetegui, Kaskamotz, Rober Gutierrez, Sugoï Etxarri, Ainhoa Mitxaus, Larraungo Udala, Labrit.

· PUBLIZITATEA:
Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:
Oier Zuñiga

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04 ► KUXKUXEAN Martxoko zorion agurrak

06 ► ZUZEN ETA JATOR

09 ► MAITE DITUT MAITE Arritxuko ibilbidea

10 ► ELKARRIZKETA

Maddi Soroa Navarro



14 ► BATZARRE

16 ► ERREPORTAJEA



Kirol guztietarako balio duen kamiseta

20 ► ELKARRIZKETATXOA

Jose Manuel Zubillaga eta Eneko Legarra



22 ► KULTURA

24 ► ERREPORTAJETXOA Kolorez betetako ihoteak

28 ► PLAZATIK PLAZARA

Hondakin organikoen kudeaketa

31 ► AGENDA





Jokin Mitxeltorena Eskamendi
Martxoaren 3an 9 urte beteko ditu gure gizontxoak.
Ongi pasa zure egunean ta segi horrela. Muxu bat etxekoan partez.

Lander Flores Eskamendi
Martxoaren 30ean 14 urte beteko ditu
Ongi pasa zure egunean ta aupa zu. Muxu bat denon partez.



Unai Amoztegui Goikoetxea
Martxoaren 12an 7 urte betetzen dittu gure gizontxok.
Zorionak eta oso ongi pasa. Muxu erraldoia etxeko guztien partez.



Alai Michaus Landa
Martxoaren 25ean, 3 urte.
*Zorionak etxeko txikitxoari!
Segi beti bezain alai eta bihurritxo izaten! Muxu handi bat familia guztiaren partez.*

Ander Buldain De la Rosa
Martxoaren 26an, 6 urte.
Zorionak Ander zure familiaren partez. Egun on bat izan dezazun. Asko maite zaitugu.



Kepa Pérez de Rozas Cuesta
Martxoaren 8an, urte bat.
Zorionak zure lehen urtebetetzean petit! Segi horren irribarretsu eta bixi. T'estimem, etxekoak.



Jon Vicente Alkorta
Martxoaren 4an, 10 urte.
Zorionak, Jon!!! Segi beti bezain jator eta alai!!!! Muxu haundi bat Laida, Luar, aitatxo eta amatxoren partetik!!!

Bittor Esnaola Sotil
Martxoaren 12an, 9 urte.
Zorionak Bittor, seittu beti bezain jator eta asko gozatu zure urtebetetze egunean. Besarkada haundi bat etxekoan partez!



Haizea Apezetxea Goikoetxea
Martxoaren 3an, 12 urte.
*Zorionak Haizea, bihotza! 12 urte puska!!
Asko disfrutatu zure egunaz.
Muxu handi bat zure familian partetik.*



Mertxe eta Arturo
Mertxek 51 urte beteko ditu martxoaren 18an, eta Arturok 5 urte martxoaren 27an.
Zorionak bioi!! Segi zuen parrekin gure bizitzak alaitzen!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainetan



PIXOIHAK ARAXES ERREKAN

Orain dela bi urte, 40 pixoihal baino gehiago atera zituzten Araxes errekatik, Atalluko Elbarrena auzoan, 75 metroko eremu batean. Bertako bizilagun batzuek azaldu dutenez, berriro ere bota dituzte pixoihalak erreka zati horretara; ia egunero agertzen dira pixoihal zikinak errekan, eta salaketa jarri dute Foruzaingoan. Espero dute arduradunak pixoihalak botatzeari utz diezaioala, "ulertezina baita horrela jokatzeari".



LEKUNBERRI ERTZILLATIK ATERA DA

Lekunberriko Udalak erabaki du Ertzilla Ur Partzuergotik ateratzea. Horren parte dira Iribas, Etxarri, Mugiro, Arruitz eta Alliko kontzejuak; Larraungo Udalak eta Nafarroako Gobernuak ere parte hartzen dute. Udalaren arabera, partzuergoa ez dator bat indarrean dagoen legearekin, eta figura juridiko berri baten alde egin du. Halaber, ziurtatu du ur zerbitzua bermatuta egonen dela. Camino Garralda Iribasko alkatea eta partzuergoko presidentearen arabera, erabaki horren ondorio ekonomikoak nahiz zerbitzuan izanen duen eragina aztertuko dute.



SALTO UDALEKUETAKO IZEN EMATEA, IREKITA


Irekita dago dagoeneko udalerririk euskaldunetako gazteentzako udalekuetan izen emateko epea, martxoaren 31ra arte. Aurten, ekainaren 26tik uztailearen 4ra izanen dira topaketak. Orozkotik Dimarako bidea eginen dute udalekuan parte hartuko duten 120 lagunek. Udalerririk euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziazatzea eta eragile aktibo bihurtzea da UEMAK antolatzen dituen udalekuen helburua. Eman izena uema.eus helbidean edo 943 81 66 99 zenbakira deituta. 2005 eta 2008 artean jaiotakoentzako dira.

► Mikel Alvarez (Betelu)



*Aralarreko mendietatik
Bizkaiko hiri handira
ikasle garai ameslariak
izan zuen segida
12 urte airean hegan
joango ziren guztira
Orain atzera begiratzeko
hartuko dut perspektiba
edonorentzat bere sustraiak
garrantzitsuak baitira*

*Hirian dago zarata asko
eta kalean kaosa
Hemen mailoen azpian biziz
amalurraren ahotsa
nahiz urte luzez kanpoan bizi
ez daukagu zertan lotsa
azken finean Bilbon hartu dut
naizenaren bizipoza
herri honetan daukadalako
arima eta bihotza*



Doinua: Itsasoari begira Hurrengoa: Idoia Garmendia (Betelu)



EH BILDUK HIRU ALKATEGAIK AURKEZTU DITU: LARRAUN, ARAITZ ETA LEKUNBERRIN

EH Bilduko kidegoak Larraun, Aritz eta Lekunberriko hautagaitzak aukeratu ditugu 2023ko maiatzeko udal hauteskunderi begira. Larraunen Mikel Uharte izango dugu alkategai, Aritz Gailur Zubillaga eta Lekunberri Arkaitz Goikoetxea. Hiru alkategaiek beraien udalerriarekiko konpromisoa eta urte hauetan pilatutako ezagutza jarriko dute herritarren mesedetan.

EH Bildu

ZUZEN ETA JATOR

*Zergatik bai!

Euskaraz, galdetzailea dugu zergatik, eta, beraz, ez da egokia erantzunetan erabiltzeko, ez baiezko ez ezezkoetan. Galdetzaile horri dagokion erantzuna galdegaia denez, -(e)lako egitura dagokio normalean:

• **Zergatik zoaz etxera?**
• ***Zergatik bai!** > Nahi dudalako.

• **Zergatik ez zoaz etxera?**
• ***Zergatik ez!** > Ez dudalako nahi.

Ezezko modura emandako galderetan, badu tokia:

• **Zergatik zoaz etxera?**
Eta zergatik ez [naiz joango, ba]?

Gure hizkuntzan hainbat forma ditugu kausazko perpausak egiteko:

- Berandu delako joan da etxera.
- Etxera joan da, berandu da eta.
- Ezin dut erosi, ez baitaukat dirurik.
- Apurtuta zegoenez, bota egin dut.
- Elurra zela eta, ezin izan ginen joan.
- Gaizki hitz egiteagatik zigortu naute.

**Ikur hau dutenak ez dira zuzenak.*

FORO SOZIAL IRAUNKORRA

Foro Sozial Iraunkorra bere eginkizuna amaitze aldera doan honetan, eskatu didate nire esperientzia laburki kontatzeko. Laurogeita hamarreko hamarraldiaren hasieran ekin nion nik ibilbide honi, hastapenean Elkarrirekin, gero Lokarrirekin, eta, geroago, azkenik, Uharanekin, Lokarriren legatua kudeatzeko. Nire adinarekin eta gurpil aulkian ibilita, jada ez nuen asmorik beste talde gehiagotan aritzeko.

Gainera, hasiera batean, Foro Sozial Iraunkorrek, Iruñean, leku helezin batzuetan egiten zituen bilerak, eta, fisikoki ere, ezinezkoa gertatzen zitzaidan joatea. Geroago, ordea, pixkanaka, hasi ziren lortzen toki irisgarriagoak beren bilerak egiteko, eta, halaxe hasi nintzen animatzen ni ere, parte hartzea bilera eta ekitaldi haietan, hurbileko pertsona batzuek bultzatuta.

Geroxeago, COVID-19aren izurria iritsi eta itxialdia dela-eta, hainbat bilera bideo deiaz egin ziren; era hartan, arazo handirik gabe, parte hartu ahal izan genuen bilera haietan. Egoera berriro, pixka bat normalizatzen hasi zirenean, jadanik, presentzialki jarraitu genuen egiten bilerak, batzarrak eta ekitaldiak.

Nik neronek aitortu behar dut, niretzat oso esperientzia ona eta aberasgarria izan dela. Ideologia eta sinismen ezberdineko pertsonak hartu izan dugu parte, errespetu handiz, istilurik sortu gabe, norberak bere proposamen, iritzi eta ekarpenak eginez, gizalegez eztabaidatuz, eta gehiengoz erabakitzen zena, aurrera eramanez.

Nire iritzirako, Foro Sozial Iraunkorreko zuzendaritza taldekoak ere, oso trebeak eta eskudunak izan dira, eta, neurria handi batean, behinik behin, haiei esker joan dira gauzak aurrera hain ongi.

Orain, behar bezalako bukaera egitea falta da, eta, oraindik lortu ez diren helburuak eta jomugak, beste pertsona, talde edota kolektibo batzuek hartu beharko dute lekukoa, aurrera egiteko. Gizarte honen arazo guztiak ezin dira gauetik goizera konpondu; orain beste pertsona batzuen txanda heldu da. Neroni pozik gelditu naiz.

Xanti Begiristain Madotz.

Auritz, 2023-02-16.

1953. URTEAN JAIOTAKOENTZAKO DEIALDIA KINTO BAZKARIA EGITEKO

1953. urtean jaiotako herritar batzuk kinto bazkaria antolatzen ari gara martxoaren 25erako, eta, horregatik, urte horretan jaiotakoak animatu nahi ditugu bazkarira etor daitezen. Bazkarian izena emateko, deitu 626 80 91 86 edo 659 52 74 59 telefono zenbakietara. Animatu zaitetz!

Maritxu Balda eta Josefina Gorostegi

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**



urrutia
enea

etxeko hestekiak


LEKUNBERRI

ALDATZEKO

GARAIA



DA



Baliatu gaur Nafarroako
Gobernuaren laguntzak, eta
bizkortu zure energia-trantsizioa,
etxea berrituz, mugikortasun
iraunkorrarekin bat eginez edo
energia berriztagarriak hautatuz.

**LAGUNTZAK 2023KO ABENDUAREN
31RA ARTE INDARREAN.
INFORMA ZAITEZ GAUR**

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



nafarroogreen.eus

Hurrengoa:

Aitor Etxarri (Oderitz)



**Mikel Zubillaga
(Betelu)**

maite ditut maite gure bazterrak

Arritzuko ibilbidea

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 4 km
Desnibela: +350m
Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Betidanik egin dudan bidea izan da, etxetik gertu gelditzen zait eta txakurrarekin askotan ibili naiz bertatik. Bidean zehar, Malloak eta Beteluko txoko guztiak ikusten dira.

Bidea:

- 1 Beteluko plazatik hasita, Latei aldera joanda "Malloetako behatokia" jartzen duen bidea hartu. Bide hori zuzen jarraitu behar da gorantz.
- 2 Bidean aurreara eginez, zuhaitzetatik atera eta Malloak ikusten hasiko gara, jarraian langa batera iritsiz. Hau pasatu, eta zuzen jarraitu behar da.
- 3 Gora iristean, Elostak ikusten hasiko gara. Hau inguratzen duen bidea jarraituz iturri bat ikusiko dugu. Zati honetan putre ugari ibiltzen dira!
- 4 Ondoren, Aiztitzoko langara iritsiko gara. Bertan, eskuineko bidea hartu behar da, basotik barrena doana.
- 5 Bide horren goiko aldera igota daude ibilbideko ikuspegi hoberenak. Puntu horretara iritsita, bueltako bidea hartzen hasi behar da. Horretarako, amildegia jarraitu eskuinetik eta basoan barrena sartu.
- 6 Basotik behera jarraituta mina zuloetara iritsiko gara. Bertatik pasa eta egurrezko langa bat aurkituko dugu. Hau igaro behar da eta behera jarraitu. Ondoren eskuinetara dagoen ataka ireki behar da eta handik behera jaitsi. Gogoratu gero berriro ataka ixteaz!
- 7 Behean hiru bide ikusiko ditugu. Ezkerrekoa hartu behar da, bide horrek Postenean utziko gaitu, eta honekin amaituko da gure ibilbidea.

“Kantaera lantzeak ahotsa zein doinua modu malguagoan erabiltzeko aukera ematen dio bertsolariari”

Maddi Soroa Navarrok (Lekunberri, 1997) Pedagogia espezialitateko goi mailako ikasketak egin zituen Donostiako Musikenen. Bere Gradu amaierako lanak, Bertsolarien formazioan bertsoa sortzeko eta interpretatzeko konpetentzia arloak izenekoak, Donostiako Orfeoia-Musikene Saria eta EHUko Mikel Laboa katedrak eta Bertsozale Elkarteak ematen duten GRALen Saria irabazi ditu azken bi urteotan.

Nondik datorkizu bertsozaletasuna?

Denborarekin garatzen joan da. Ez nuke esango betidanik izan dudana zaletasuna izan denik eta bertsolaritza urteetan zehar maila berean jarraitu dudanik. Etxean aita eta ahizpa bertsozaleak dira eta Uitziko amona ere oso. Txapelketen oihartzunak harrapatzen joan gintuen eta finalurreko saioetara joaten hasi ginen elkarrekin, baita herrietako bertso saioetara ere. 2009ko Txapelketan gaztetxoak ginen, baina Maialenen lehenengo txapel hori gogoan dut. 2013ko Ametsen finaleko azken agurra eta beste zenbait bertsoaldi ditut buruan. Dena den, 2017ko Txapelketa izan zen gehien bizitu nuena eta esango nuke hortik aurrera hasi nintzela modu kontzienteago batean jarraitzen eta gozatzen bertsolaritza. Txapelketa hori abian zela hasi nintzen bertsolaritzari buruzko lehenengo ikerketa lanarekin eta perspektiba aldaketa ere hor gertatu zela esango nuke.

Bederatzi konpetentzia aztertu dituzu zure GRALean: edukia, doinua, neurria, errima eta oina, abiadura eta denbora, memoria, inprobisazioa, gaitasun sozioemozionalak eta kantaera. Zergatik jarri nahi izan zenuen fokua bertsolarien kantaeran?

Kantaeraren konpetentzia arloa definitu nahi izatetik sortu zen ikerlan osoaren ideia. Honek, lan idatzian, beste konpetentzia arlo batek bezainbesteko garrantzia badu ere, dudarik gabe hau osatzeak eman zidan lan gehien. Honen



“Kantaeraren kompetentzia arloa definitu nahi izatetik sortu zen ikerlan osoaren ideia”



Maddi, saria jaso zuenean. Arg: Maddi Sorroa

inguruan aurkitu nuen informazio urriak beste iturri batzuetan bilatzera behartu ninduen eta ahotsaren eta kantuaren inguruko bederatziditu desberdinekin egin nituen elkarrizketetako edukia ordenan jartzea lan mamitsua izan zen. Denbora bat bazen buruan nerabilela bertsolariek ahots kantatuaren gaitasun komunikatiboak guztiz ustiatzen ez zituztela. Kantaera zerk osatzen zuen ikertu nahi nuen, zein aukera ematen zizkion bertsolariari, zein onura ekarri... eta hori dena ikaskuntza-irakaskuntza ikuspuntu batetik.

Nola definituko zenuke kantaera bera?

Ez da lan erraza. Momentuz ez dago bere definizio bateraturik. Kantaerari buruz egin diren ikerketak urriak izan dira eta gainera, jakintza arlo desberdinetatik abiatutakoak. Hortaz, aditu bakoitzak bere ikuspuntua txertatu izan dio definizioei. Ainhoa Aizpuruak, esaterako, prosodiaren ikuspegitik ikertu du bertsolarien kantaera eta “norbaitek (euskarazko) hitzak

musikan txertatzeko era” dela dio. Itziar Navarrok, ordea, musikaren ezaugarrietan oinarrituta egin zuen kantaeraren ezaugarrien definizioa. Azentua, intonazioa eta artikulazioa joaz bien ezaugarritzat, adibidez. Jone Miren Hernandezek antropologia feministaren ildotik abiatutako ikerketetan bertsolarien ahotsean jartzen du arreta eta honek berez esaten duen guztian.

Dena dela, kantaerak kantua ekartzen digu burura, eta kantutik abiatuta, ahotsa. Kasu honetan, gainera, ez da ahotsa bakarrik, kantu bidez erabiltzen diren doinuek ere zeresan handia baitute. Nahasketa horrek aukera infinituak ematen ditu eta aukeraketa horren arabera izaten da bertsolariaren kantaera, aukeraketa hori testuinguru jakin batean kokatutakoa izango dela kontuan hartuta.

“Bertsolaritzan kantaera ez da modu kontzientean kontuan izaten”

Bertsolaritzan kantaera aski zaintzen dela uste duzu?

Zaintza bezala garrantzia ematea, honen gaineko lanketa, ikerketa, balioztapena... ulertzen badugu ezezkoa emango nuke. Horren adibide dira, lehen aipatu bezala, honen gainean egindako ikerketa urriak, bertso-eskoletan, oro har, bere lanketa ez dela egiten, Txapelketetako epai-irizpideetan egiten zaion aipamen eskasa eta epaile direnen eskutik jakin dudanez ematen dioten garrantzia apurra, esaterako. Modu orokor batean esango nuke ez dela, modu kontzientean behintzat, kontuan izaten den arloa bertsolaritzan, nahiz eta inplizituki hor dagoen, bertsoaldien parte delako beti.

Publikoak horren falta sumatzen duela uste duzu?

Presentzia falta horrek eta bestela nola izango litzatekeen ez identifikatzeak, entzule bezala horretara ohitzera eramaten gaitu eta kantaera mota batek edo besteak bertsoaldi batean ekarri ditzakeen aldaketetaz ez hausnartzera.

Adibideren bat?

Entzuleak bertsoaldia jasotzeko eran suertatzen dira aldaketak. Bertsoaldiak eskatzen dituen ezaugarriekin bat ez badoa kantaera, bertsolariaren eta entzulearen artean sortzen den komunikazioari kalte egingo dio honek. Ondorioz, posible da bertsolariak helarazi nahi zuen mezua hain garbi ez iristea entzulearengana.

Kantaera lantzeko tailerrak eman izan dituzu. Nolako esperientzia izan da?

2021eko uztailean UEUren udako ikastaroen barruan, Iruñean, bertso eskoletan bat-bateko bertsoen kantaera lantzeko tailer praktikoa bat gidatu nuen. Zortzi bertsolari hurbildu ziren ikastarora eta esperientzia polita izan zen, han ginen denentzako berria. Bakoitzaren ahotsaren inguruko kontuekin aritu ginen aurrea eta ondoren doinu baten inguruan aritu ginen lanean. Bertsoaldiren bat edo beste ere entzun genituen eta erabilitako kantaeraren inguruko analisia egiten saiatu ginen, betiere testuarekin eta testuinguruarekin harremanetan jarriz entzundakoa.

“Aldeko jarrera sumatu izan diet ikerketa lanerako elkarrizketatutako bertsolari gehienei”



2017ko txapelketan Maialen Lujanbio. Arg: Dani Blanco. ARGIA

Zein izan da bertsolariengandik jaso duzun jarrera?

Tailerrean parte hartutako bertsolariaren jarrera positiboa izan zen eta oro har, bertsozale elkartetik jasotakoa ere bai. Aldeko jarrera sumatu izan diet ikerketa lanerako elkarrizketatutako bertsolari gehienei eta hitz egiteko aukera izan dudana bertso munduko beste zenbait adituri ere bai. Egia da, kezka ere antzeman izan diedala zenbaiti, musikaren arauak bertsolarietan txertatu nahi izatearena edo, baina argi eta garbi utzi izan diet ez dela hori asmoa. Berezko kantaera defendatu zuenik ere egon zen, lanketaren beharrik ikusten ez zuena.

Beraz, aurrerantzean gehiago landuko den kompetentzia izango dela uste duzu?

Jarrera orokorra aldekoa izanda ere, hortik lanketan hastera badago aldea. Kontzientziazio maila

kolektibo altuago baten beharra ikusten dut salto hori emateko eta ondoren, lanketa hori nola bideratu pentsatu beharko litzateke.

“Kantaeraren lanketak ahotsa zein doinua modu malguagoan erabiltzeko aukera ematen du”

Zertan lagunduko du kantaeraren lanketak?

Onura nagusia ahotsa zein doinua modu malguagoan erabiltzeko aukera ematen duela da. Betiere, komunikazioa hobetze aldera egindako aukeraketak eraginez. Modu honetara, kantaerari dagokionez aberastasun handiagoa jaso behar genuke entzuleek bertsoaldietan. Ahotsa identitate marka bat dugu eta esango nuke bertsolariari ongi

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo
Otamendi
Artola

Atallu - Arantz



Arg: Maddi Soroa

etor dakiokela bere ahotsaren ezaugarriak ezagutzea, ondoren testuinguruaren eta interesen arabera moldatu ahal izateko. Homogeneizaziorako kezka egon daiteke, baina ahots bakoitzaren beharretara eta berezitasunetara moldatzeak, berez desberdintasuna ekartzen du, eta doinuak momentuko eta testuinguruko interesetara moldatzeak ere bai.

Uste duzu, pixkanaka bada ere, kantaerak epai-irizpideetan pisu handiagoa hartuko duela?

Presentzia eta garrantzia irabazten joaten bada agian bai. Baina, momentuz ez dut posible ikusten. Bere gaineko lanketarik bermatzen ez den bitartean ere ez luke ebaluatu beharreko arloa izan beharko. Beraz, lanketa hori nola bideratu pentsatzen hasi beharko litzateke lehenengo, ondoren zer ebaluatu erabakitzeko.

Kantaerari dagokionez, baduzu bertsolari kuttunik?

Bertsolariak baino gehiago bertsoaldiak agian, kantaera batek ez baitu balio testuinguru guztietarako. Ahots sendo bat, esaterako, bakarkako indartsu baterako oso egokia izan daiteke, baina umorezko puntukako saio arinago baterako ez du hain ongi emango, adibidez.

Busti zaitez...

Gustatzen zait Maialenen isiluneen kudeaketa. Eta baita nola moldatzen dituen doinuaren ezaugarriekiko dinamikak eta abiadura. Master Amaierako Lanerako egindako ikerketako ondorioetako bat izan zen.

Zertan dabil orain Maddi Soroa?

Bartzelonan nabil J. Dalcroze metodologian graduondoko bat egiten, musika eskola batean irakasle lanetan nabilen bitartean.

Zer da Dalcroze metodologia?

Metodologia aitzindaria da gorputzaren mugimendua erabiltzen musika irakasteko. Bere beste ardatzetako bat du inprobisazioa.

Ez zara, beraz, bertsolaritzatik hainbeste aldendu...

Nahitaez gogoratzen naiz bertsolaritzarekin eta ez dut baztertzen bi inprobisaketak batuko dituen disziplinarterko proiektu batekin bukatzea graduondokoa.



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



▶ SAKANAKO, ARAIZKO ETA LARRAUNGO UDALEK ARALARKO GASBIDEAREN TRAZAKETA ALDATZEKO ESKATU DUTE

Udal ordezkariak Etxeberri-Lekunberri gasbidea Plazaolako bide berdetik igarotzeko aukera berrazter dadin nahi dute. Naturgy taldearen gasa garraiatzen duen Nedgia enpresak Plazaolako proiektua baztertu zuen, Babes Berezikoa den Aralar mendilerroaren bost kilometro zeharkatzen duenaren mesedetan. Helegitea aurkeztu bazen ere, Auzitegi Gorenak ez zuen tramitera onartu. Arakil eta Larraungo alkateak, faunari, florari eta sistema hidrikoei kalteak eragin ahal zaizkiela iritzita, ardura zuzena duen Nafarroako Gobernuaren ordezkariekin bildu dira, zentzuz joka dezatela eskatzeko.



▶ INTZAKO TEILERIA INAUGURATUKO DUTE MARTXOAREN 26AN

Euskal Herrian zortzi teileria inguru bakarrik berreskuratu dira gaur egun arte, eta Intzakoa da horietako bat. Santa Kruz ermitatik gora dago, Gaintza aldera doan bidearen eskuinean. Iturraskarrik, Araizko Udalak, Ondare Kultur Taldeak eta Aranzadik elkarlanean berreraiki zuten Intzako teileria 2021. urte bukaeran, eta orain inauguratuko dute: martxoaren 26an izanen da ekitaldia, 10:30ean Intzako plazatik abiatuta. Ondoren, hamaiketako bat ere izanen da. XVIII. mende inguruan martxan zeuden lantegiak ziren teileriak, eta teilak egiteko erabiltzen ziren.

MAILOPEREN BATZAR OROKORRA, MARTXOAREN 24AN

Mailoperen Batzar Orokorra egingen dugu martxoaren 24an, 18:00etan, Larraungo udaletxeko Gabari gunean. Besteak beste, aurrekontuak, harpidetzarekin lotutako gaiak eta aurrerantzean egingen ditugun egitasmoak izanen ditugu hizpide. Horregatik, garrantzitsua da bazkideak etor zaitezela, zuen laguntza behar baitugu aurrera egiteko. Animatu eta etorri parte hartzera, denen iritzia eta ekarpenak baitira ongiatorriak eta beharrezkoak lanean jarraitzeko!





HARITZ LARRAGETA IZANEN DA MAILLOPEKO KAZETARI BERRIA

Hilabetero-hilabetero gure aldizkaria osatzeko kazetari berri bat izanen dugu lantaldean: Haritz Larrageta iruindarrak aurretik ere izan du Lekunberri eta Larraun ezagutzeko parada, bertan bizi eta lan egin izan baitu hainbat urtez. Orain, berriz, Iruñean bizi da, baina, aldizkariaren bitartez, Araitz eta Betelukoak ere ezagutzeko aukera ederra izanen du. Ongi etorri taldera, Haritz!



MARTXOAREN 19AN IZANEN DA 33. LEKUNBERRIKO KROSA; DORTSAL SOLIDARIOAK EROSI AHAL IZANEN DIRA, KASKAMOTZENTZAKO

33. Lekunberriko Krosa Arruizko Txikito Memoriala martxoaren 19an izanen da, 12:30ean, eta, lasterketan parte hartzeaz gain, dortsal solidarioak ere eros daitezke 10 euroan, Kaskamotz egitasmoari laguntzeko. Ibilbideari dagokionez, iaz herrian barrena egin zuten lasterketa aurrenezko, eta ez Azpirozko portuan, ordura arte egiten zen bezala. Aurten ere hala izanen da, eta hiru aukera izanen dira parte hartzeko: batetik, 4 kilometro eta 700 metro inguruko buelta bat; bestetik, ibilbide bereko bi buelta; eta, azkenik, bi buelta baina bikote mistotan, hau da, bakoitzak buelta bat emanda. Bestalde, haurren lasterketa 11:00etan izanen da. Izena emateko edota dortsalak erosteko, sartu www.kronoak.com webgunean.

BLANESERA BIDAIA EKAINAREN 8TIK 17RA

San Juan Lekunberriko zentro zibikoak bidaiari paregabekoa antolatzen du udarako: ekainaren 8tik 17ra Blanesera joanen dira, Costa Bravara (Girona). 475 euro ordaindu beharko da haiekin joateko, eta prezioan sartuta daude, besteak beste, joan-etorria, lau izarreko hotel batean egonaldia mantenu osoarekin (Hotel Blaumar) eta aseguruia. Izena emateko, deitu 948 50 73 04 zenbakira.



Kirol guztietarako balio duen kamiseta

Azken bi urteotan, Lekunberri Kirol Elkarteak forma hartuz joan da eta, gaur egun, bederatzik sekzioetan banatzen diren 166 kirolari biltzen dituela, pauso sendoagoak ematen hasi da eskualdeko eta Nafarroa mailako kirolean. Joseba Jokin Ordoki presidenteak eta Rafa Sarriegui idazkariak klubaren ibilbideari eta erronkei buruz hitz egin dute.

16

Zer du komunean judoka batek txirrindulari batekin? Eta igerilari batekin? Eta disc golf jokalarirekin? Itxuraz, ezer gutxi. Baina 2021ean Lekunberri erein zen proiektuaren adarren parte dira horiek guztiak. Eta ez horiek bakarrik, bederatzik kirol biltzen baititu Lekunberri Kirol Elkarteak guztira: igeriketa sinkronizatua, eskubaloia, BTT mendiko bizikleta, kirol-gimnastika eta eskalada gehitu behar zaizkio aurretik aipatutakoei. Eta, gaur-gaurkoz, ez dute zuhaitza inausten ibiltzeko asmorik; kirol gehiago sartzeko atea zabalik dago parez pare.

“Guztiei eskaini zaie Lekunberri Kirol Elkartearen sartzera, eta guztiz ulergarria da Beti Kozkor eta Larraun Pilota Elkartearen bezalako talde sendoek beren bideak jarraitzeko hautua hartu izana”

Joseba Jokin Ordoki

Ideia jatorria

Baziren Lekunberri eta inguruetan, futbolarekin eta pilotarekin alderatuta, minoritario kontsidera daitezkeen kirolak praktikatzeko zuzten pertsona asko. Gaur egun kluba konpartitzen duten kirolari horiek, momentu hartan, beharra zuten partekatzen: federazio baten barnean lehiatzeko aukera emango zien kirol egitura. Ordura arte, beren kiroletan aritu nahi izan duten askok beste eskualde batzuetara jo behar izan dute aukera horren bila. Orain, kirol elkarteak osatu denetik, etxetik gertu jardun daitezke, Lekunberriko armaria paparrean.



Horren guztiaren ernamuina eskubaloi taldea izan zela esan badaiteke ere, laster jarri ziren horren sustatzaileak beste kirol batzuetan zebiltzanekin harremanetan. Helburu argia zuten: Lekunberrin diziplina askotarikori tokia emango zien kirol elkarteak eratzea. 2021eko udan hasi ziren aurreneko kontaktuak eta urte bereko urrirako martxan zegoen egitasmoa; lau bizilagunen ametsa 166 kirolari biltzen dituen kluba bilakatu da. Gonbidatuak izan ziren arren, aski errotuta dauden Beti Kozkor futbol taldeak eta Larraun Pilota Elkartek kirol talde berrira ez batzea erabaki zuten. Horren harira, Joseba Jokin Ordokik adierazi du kirol guztiei eskaini zitzaiela Lekunberri Kirol Elkartearen sartzera eta guztiz ulergarria iruditzen zaiola Beti Kozkor eta Larraun Pilota Elkartea bezalako talde sendoek beren bideak jarraitzeko hautua hartu izana. Beti Kozkorren kasuan, gainera, batzuek ekarriko ziokeen kategoria galtzeak ezinezkoa egiten zuen kide bihurtzea. Ordokik berak gaineratu nahi izan du elkartearen daudela horren parte izan nahi duten guztiak.

Klub egiturak eskaintzen dizkien aukerak

Kirol guztiek ez dute lehiaketetan parte hartzen, badira batzuk zeintzuk praktikatzeko aukera baino ez duten bilatzen. Eta lehiatzeaz eta kidegizteaz haragoko onurak ere dakarzik kluba eratu izanak talde hauei guztiei. Besteak beste, goi mailako kirol ekitaldiak erakartzeko gaitasuna: estatu mailako BTT jardunaldi bat eta eskubaloiko emakumezkoen Ohorezko mailako eta gizonezkoen Asobal ligako partidak ekartzera ahalbidetu du klub egitura izateak.



Arg: Juan Antonio Garaikoetxea



Arg: Juan Antonio Garaikoetxea

“Ez da gauza bera laguntza horiek eskatzea diziplina bakar baten izenean edo 166 lagun ordezkatzaren dituen klub batenean”

Rafa Sarriegui

Klub federatuak eskaintzen duen beste abantaila nabarmenetakoa babesleak eta diru-laguntzak eskatzeko aukera izatea da. Hiru babesle ditu, gaur egun, kirol elkarteak: Mepsa, talde osoa babesten duena; Lacturale, eskubaloia laguntzen duena, eta Biraka, BTT sekzioa sustengatzen duena. Discgolf zelaia Euskadisc golf enpresak eta Lekunberriko Udalak finantzatu zuten. Diru-laguntzei dagokienez, Rafa Sarrieguiaren hitzetan, “ez da gauza bera laguntza horiek eskatzea diziplina bakar baten izenean edo 166 lagun ordezkatzaren dituen klub batenean”.

Elkartearen funtzionamendua

Lekunberriko Udalarekin hainbat kirol-espazioren erabilera ituntzen badabilta ere, ordezkariak argi utzi nahi izan dute kluba ekimen pribatua dela eta, honenbestez, ez dela udalaren menpeko.

Era berean, diziplina guztiak modu independentean kudeatzen dira. Kirol elkarteak biltzen eta sustengatzen ditu eta elkarrekiko solidarioak dira; haatik, beren erabaki esparruei eusten diete eta babesle propioak bilatzeko aukera du sekzio bakoitzak. Egin ohi dituzten batzarretan edozein bazkidek du hitz egiteko eta proposamenak aurkezteko eskubidea. Lehenago aipatu bezala, edozein kirolek atea zabalik ditu, eta baita proiektuaren parte izateko borondatea duen edozein pertsonak ere. Eta borondatea da azpimarratu beharko litzatekeen beste alderdi bat, boluntarioak baitira gaur egun elkartearen egiten diren lan guztiak.

ERREPORTAJEA

KIROLA	ARDURADUNAK
Eskubaloia	Joseba Jokin Ordoki
Judo	Olatz Iribarren eta Miguel Inda
Disc golf	Rafa Sarriegui
Igeriketa	Iraia Astiz eta Olatz Cestau
Igeriketa sinkronizatua	Jone Etxarri
Txirindularitza	Xabier Zamargilea eta Iñigo Lasarte
BTT	Iñigo Garcia eta Mikel Ormazabal
Kirol gimnastika	Olatz Iribarren
Eskalada	Joseba Jokin Ordoki

Datozen erronkak

Klubaren hazkundera azkarra eta etengabea izan da azken bi urteotan eta kontent azaldu dira ordezkariak. Geroz eta talde gehiago ari dira sortzen. Eskubaloian, adibidez, federazioaren eskutik eskoletan egin ziren aurkezpen batzuek lagunduta, hirugarren taldea eratu berri dutelarik, laugarren bat etor litekeela aurreikusten dute epelaburrean. Kirol gehiago ere hurbildu zaizkie azkenaldian eta irristaketa izan liteke, agian, elkartean integratzen hurrengoa.

“Elkartearen daude horren parte izan nahi duten guztiak”

Joseba Jokin Ordoki



Arg: Juan Antonio Garaikoetxea

Poztasun horren guztiaren ifrentzua arrakasta horren kudeaketak eragiten dien kezka da. Zenbat eta kirol eta bazkide gehiago, orduan eta lan gehiago, eta boluntariotzan oinarritzen den erakunde batean hainbat buruhauste ekar ditzake horrek.

Lekunberri Kirol Elkartearen koloreekiko atxikimendua indartzeko eta inguruko klubuen errekonozimendua lortzeko bidean lan egingo dute, baina aitortzen dute oraingo erronka nagusia bizpahiru urteko epean kluba egonkortzea dela. Momentuz, oinak lurrean nahi dute ibili; hortik aurrera, amets egiten has litezkeela irizten dute.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



errigora

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio
birjina estra, kontserbak, arrosa, pasta
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



“Auzolanean aritzen dira herritar asko, baina ohitura hori ere aldatzen ari da”

Araizko Udalak, lehiaketa publiko baten bidez, herri langile bat kontratatu berri du. Orain arte ez zegoen lanpostu hori ibarrean, baina, Jose Manuel Zubillaga alkateak azaldu duenez, beharrezkotzat jo zuten langile bat izatea udaletxeko mantenu lanak egiteko eta kontzejuei laguntzeko. Eneko Legarra basaburuarrak lortu du lanpostua.

Zergatik erabaki zenuten zela beharrezkoa herri langile bat kontratatzea?

Jose Manuel: Ikusten genuen beharrezkoa zela udaletxerako langile bat hartzea, baina ez jornada osoz. Izan ere, beti egoten dira konpondu beharreko gauzak, garbiketak egin beharra... Hala, kontzejuekin harremanetan jartzen hasi ginen. Aurrena, Intzako eta Uztegiako kontzejuekin hitz egin genuen, haiek direlako kontzejurik txikienak eta biztanle gutxien dutenak. Haiek ere arazoak ikusten zituzten eginbeharrak betetzekoan, eta kompetentzia batzuk udalari pasatzeko prest agertu ziren, urarekin eta herriko mantentze lanekin lotutakoak. Ondoren, gainerako kontzejuekin elkartu ginen, Gaintzako, Azkarateko eta Arribe-Atallukoekin, eta ez zuten behar hori ikusten. Uste zuten orain arte bezala moldatzeko gai zirela. Baina guk beste proposamen bat egin genien, esanez herri langile bat kontratatu nahi genuela kontzejuei laguntzeko asmoz, eskumenak pasatu gabe, eta hitzarmen bidez egin zitekeela. Orduan, errazago ulertu zuten gure

proposamena, eta orain hitzarmen horiek egiteko fasean gaude Azkarate eta Arribe-Atallurekin. Intzan eta Uztegin lanean hasi da dagoeneko, eta Gaintzako Kontzejuek esan zigun nahiago duela aurrerago hartu erabakia, gainerakoetako martxa ikusi eta gero.

“Badakigu kontzejuek mesfidantza pixka bat dutela udalarengan, baina udala beti dago kontzejuei laguntzeko prest”

Joxe Manuel Zubillaga
Araizko alkatea

Izan ere, orain arte kontzejuen ardura izaten zen mantenu lanak egitea, ezta? Udalak ere esku hartzen zuen?

Jose Manuel: Bai, baina arazoren bat sortzen denean, udalera jotzen dute kontzejuek, eta udalari tokatzen zaio kudeaketa hori egitea. Horregatik, uste dugu hobea dela arazo bat sortu aurretik horretaz arduratuko zen herri langile bat izatea.

Zer egingen du zehazki?

Joxe Manuel: Uraren kloroa kontrolatu, garbiketa lanak... horrelako gauzak, uste baitugu oso beharrezkoa dela horiek egoki kontrolatzea. Gainera, kontzejuei lana kenduko die horrela. Auzolanean aritzen dira asko, baina ohitura hori ere aldatzen ari da, eta kasu askotan pertsona berak aritzen dira auzolanean.

“Basaburua txikia da, hau bezalako, eta herriak ere oso antzekoak dira; ohituta nago horrelako lanak egiten”

Eneko Legarra
Herri langilea

Lehiaketa publiko bat abiatu zenuten langilea aukeratzeko.

Jose Manuel: Udalak sortu du lanpostua, lanpostu publikoa da, beraz, eta lanaldi osoz ari da. Udalarentzat aritzen da %50ean, gutxi gorabehera, eta beste %50 kontzejuei laguntzeko izanen da. Araxes Mankomunitatearekin ere hitzarmen bat sinatzekoak gara, konposta-eta kudeatzen laguntzeko.

Eta zu, Eneko, nolatan animatu zinen?

Eneko: Gartzarongoa naiz, Basaburuakoa, han sortu eta bizi naiz. Ibar txiki bat da, hau bezalako, eta herriak ere oso antzekoak dira. Nik ikusten dut hemengo beharrak hangoen oso antzekoak direla: garbiketak, ur deposituen klorazioak, konponketak... ohituta nago horrelako lanetan aritzen, eta azterketa egitera animatu nintzen. Aurretik ere aurkeztu izan naiz Iruñeko batzuetan, baina gutxi

ikasita, eta honetarako gehixeago ikasi nuen. Lehiaketan nire aurretik geratu zirenek ez zutenez postua hartu, niri eskaini zidaten. Zalantza asko izan nituen, postua hartzeak esan nahi baitzuen aurreko lana utzi egin behar nuela, eta hamar urte egin ditut aurreko lanpostuan. Azkenean, eszedentzia eskatu nuen, eta probatzea erabaki nuen. Oraingoz oso gustura ari naiz. Denbora oso gutxi da hasi nintzela, hilabete eskas, eta oraindik ere ingurua eta jendea ezagutzen ari naiz.

Aurreko lana honen antzekoa zen? Edo egin duzu lan inoiz antzeko zerbaitetan?

Eneko: Jetzitegien mantenu lanak egiten aritzen nintzen lehen. Sasiak eta belarra mozten eta igeltserotzan ez, baina etxean nahiz herrian tokatu izan zait horrelako lanak egitea. Beraz, ohituta nago horrelako lanak egiten. Lana ez zait zaila iruditzen, badakit egiten, eta horrek bultzatu ninduen lana hartzera.

Orain dela hilabete eskas hasi zara. Zer moduz orain arte?

Eneko: Ongi. Udaletxeko gauza batzuk konpontzen aritu naiz, Intzako ur depositua garbitzen eta txukuntzen, kloroa kontrolatzen... Uztegin ere aritu naiz. Bi ur depositu dituzte, bat erreserba moduan erabiltzen dute, eta hori konpondu eta garbitu dut. Oraingoz, ikasten ari naiz.

Zeure kabuz egin duzu dena?

Eneko: Joxe Manuelek esan dit zer egin, noiz eta nola, eta gero neure kabuz ibili naiz. Inguruan kokatzeko, herrietara eramanez ninduen hasieran, deposituak non dauden erakutsi... Segur aski martxotik aurrera hasiko naiz Araxes Mankomunitatearekin ere elkarlanean eta haien lana ikasten.

Lana ez da faltako, beraz.

Jose Manuel: Lan handia dago egiteko, eta herritarrek ez dute nahikoa denborarik dena egiteko... Haien bestelako lanak egiten ere nahikoa lan dute.

Eneko: Eta nahiz eta lana ez ikusi, segituan agertzen da, gainera. Udaberrian, martxo bukaeratik aurrera, belarra jaiotzen denean, orduan bai izango dela lana hori dena txukuntzen. Lehentxeago hasten bazara belarra mozten, ez du hainbesteko indarra hartzen, eta uste dut hala errazago txukunduko dugula ingurua.

Eta kontzejuek sumatuko dute, ezta?

Jose Manuel: Badakigu kontzejuek mesfidantza pixka bat dutela udalarengan, baina udala beti dago kontzejuei laguntzeko prest. Administrazioako kontu guztiak udalean egiten dira, eta hori da haiek ulertu behar dutena. Gainera, despopulazioa jaisten ari da. Bueno, aurten zero izan da emaitza Araitzen hil direnak eta jaio edo etor direnak zenbatuta. Hala ere, herritar kopurua mantentzea ez da gutxi, populazioa gero eta zaharragoa baita.

Herritarrak zaharragoak, eta inguruak ez dira lehen bezala zaintzen...

Jose Manuel: Ez. Herri langilearekin lan batzuk kendu dizkiegu kontzejuei, pixkanaka inguruak garbi mantentzeko. Baina auzolanak ere egingen dituzte tarteka, eta bestela ere izanen da nahiko lan: kanpoaldea, bideak, mendiak... Pixkanaka eta denon artean errazago izanen da. Hala ere, ez da erraza egun batetik bestera ohiturak aldatzea.

AMARU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK
948504352

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

ESKUALDEA



Esnatu da lurra makila hotsekin!

Inauterien aurretik, herritarrak kalera atera ziren Santa Ageda bezperan koplak abestera. Araitz-Betelun iaz ez zuten ospatu, pandemia zela-eta, baina aurten bai, gogotsu, gainera: Intzara joan ziren otsailaren 3an, inauteriak ospatzekoak baitziren asteburu horretan bertan, eta herritarrek denetan parte hartzeko aukera izan zezaten, antolatzaileek erabaki zuten egun horretan kantatzea. Arratsaldeko lehen orduan 55 bat lagun elkartu ziren Intzako eliza parean. Bertan ziren Araxes Eskolako irakasle eta ikasleak, Guraso Elkarteko kideak, Musika Eskolako ordezkariak, Oskar Estanga bertsolaria, txistulariak, baita Intza eta inguruko herritarrak ere. Zuriz jantzitako Mailoen begiradapean, txistulariez lagunduta,

makilak astindu eta kopla zaharrak eta bertsoak tartekatuta giro ederrean aritu ziren. Arratsaldeko saioa bukatzeko, Intzako herritarrek elkartean prestatutako merienda goxoa dastatzeko aukera izan zuten denek.

Lekunberrin eta Larraunen, berriz, otsailaren 4an girotu zituzten kaleak kantuz. Lekunberrin bertan, Iribasen nahiz Baraibarren ospatu zuten Santa Ageda bezpera, eta mokadutxo bat ere dastatu ahal izan zuten Baraibarko ostatuan. Kasu horretan ere, eragile nahiz elkarte desberdinek antolatzen dute festa: Aralar Musika Eskolak, Larraungo AEK-k, Ibarberri ikastetxeak, Larraungo Bertso Eskolak, eta Iribas eta Baraibarko kontzejuak.

Aurtengoan lurra eta kukua esnatzeko ahaleginak eginak dituzte. Hurrengoan ere beste hainbeste egiteko indarra hartu dezatela!

22

LEKUNBERRI

Haurrak protagonista Lekunberriko III. Liburu Azokan

Lekunberriko frontoiko plazan dauden etxetxoak liburuz bete ziren otsailaren 12an. Izan ere, III. Liburu Azoka antolatu zuten egun horretarako. 11:30ean ipuin kontalari baten istorioak aditzeko parada izan zuten txikienek. Antolatzaileen arabera, gainera, arrakasta handikoa, 50 hau inguru elkartu baitziren. Horrez gain, Abarzuza, Elkar, Iratxe eta El Bibliófilo liburu dendek ekarri zituzten liburuak herrira.




NEKAZARI, S.L.



Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazaris@hotmail.com



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



Kaskamotz egitasmoaren bigarren aldia egingen dute martxoan eta apirilean; dohaintzak ere egin daitezke

Haur minbiziaren ikerketarako dirua biltzea helburu, Kaskamotz Eguna egin zuten iaz Uitzin, Luar gaztetxoaren gurasoek antolatuta. Iazko arrakasta ikusita eta jaso zuten babes handiak bultzatuta, aurten ere egitasmoari segida ematea erabaki dute Jaionek eta Raulek. Hala esan diote Mailoperi: "Iaz Uitzin bitzako guztiaren ondoren, eta mundu guztiaren onarpen eta babes handiaren ondorioz, Kaskamotzeko sugarrari eutsi nahi genion eta gure hondar ale txikia ekartzen jarraitu. Lehenengo aldiz horrelako gertaera bat egitea pentsatzen dugunean, burura datorkigun lehen gauza da ea benetan zerbaiterako balio dezakeen eta merezi ote duen. Zalantza horiek guztiak egun horretan desagertu ziren, eta ospitaleko ohiko azterketek premia hori gogorarazten digute".

Azaldu dute aurtengo ekintzak beste publiko batzuei egokituta izanen direla, baina hasierako funtsa gogoan izanda: Haur Minbiziaren ikerketarako dirua biltzea eta La Pazeko Unibertsitate Ospitaleko Haur Minbizarako Terapia Aurreratuen Unitatearen lan handiarekin lankidetzan aritzea.

Bi egun berezi izanen dira: hasteko, martxoaren 19an Lekunberriko 33. Krosean bildutakoaren zati baten dohaintzarekin elkarlanean, eta talo solidarioak ere erosi ahal izanen dira; salmentan bildutako guztia dohaintzan emanen da.

Bestalde, apirilaren 1ean hainbat ekitaldi izanen dira Uitzin: 19:00etan, (Juanma Urrizak perkusioan, Joxan Goikoetxeak teklatuan eta akordeoian eta Josune Marinek gitarran lagunduta) elizan abestuko dute. Ondoren, Kantu Afari Solidarioarekin jarraituko du Orixenea etxean, Larraun Kantuzek alaituta. Eta eguna amaitzeko, gaupasa bat egingen dute, DJ Oixaniren laguntzarekin.

Aurten ere, Minbiziaren Aurkako Kris plataformaren bidez, Kaskamotz 2 erronkan lagundu daiteke dohaintzen bidez (kaskamotz.org).

"Denak gonbidatzen ditugu jardueraren batean parte hartzera eta, batez ere, ondo pasatzera. Pauso txikiekin tontor polit batera irits daiteke".



MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Eta zu zertan ari zinen hamabi urte zenituela?

Hamabi urte dituzu eta egun batetik bestera amak esan dizu bihar bidaia bat hasiko duzula. Nora? Nola? Norekin? Ez duzu bestelako informaziorik.

Lehen muga zeharkatu duzu. Bakarrik. Iranen zaude. Zure egoera berean dauden pertsonak ezagutu dituzu.

(...) Iran eta Turkia atzean utzi eta Bulgariara iritsi zara. Poliziak ez harrapatzeko, ordean, martxan dagoen trenetik jauzi egin duzue ezezagunek eta zuk. Espetxeratu egin zaituzte. Turkiara lehenik eta ondoren Iranera deportatu zaituzte. Ia irteeran zaude berriro. Errezoetan bilatu duzu aterabidea. Itxaropena duzu ez zaituztela Afganistanera bueltaraziko.

Iran. Turkia. Grezia oraingoan. Errefuxiatuen kanpalekutik ihes egin duzu eta Italiara iritsi zara. Bertan haur etorkinen etxe batean izan zara eta hemendik ere ihes egin duzu Erresuma Batua duzulako helmuga. Horretarako Frantzia zeharkatu duzu eta Calaiseko portura iritsi zara. "Oihana" deitzen dioten zonaldera.

Zortzi mila kilometro luze egin dituzu. Zeharkatu dituzun herrialdeetan ez duzu apenas topatu zure trauma, sarrakioa, desesperazioa, bakardadea, antsietatea, depresioa, haserrea... ulertu duen jenderik. Eta, noski, ezin izan dituzu barrenak inorekin hustu ez zaituztelako ulertzen. Enpatia faltagatik, batetik, eta hizkuntzaren trabengatik, bestetik.

Lerro hauek ez dira asmatuak izan. Gulwali Passarlayren bizitza da "The lightless sky" liburuan jaso duena.



KOLOREZ BETETAKO IHOTEAK!

Ihoteak izan dira otsaileko protagonistak gurean: Betelun, Lekunberrin, Aldatzen, Arruitzen, Azpirotzen eta Baraibarren ospatu dituzte; eguraldia lagun, gainera. Gaintzan eta Gorritin izanen dira martxoko aurreko asteburuan. Biba zuek!



Arrazoia izan

Behin galdetu nion literaturako irakasle bati, ea zer zen eztabaida gehienetan aldarrikatzen zena, arrazoi izatea, alegia, ideiak ongi lotuak izatea, ondorio logiko batera iristea, edo aldiz "arrazoi bakarra" izatea, ideia zuzena, ondorioz bestearena okerra zen. Ez zuen erantzuten jakin, nik ere ez dakit argi azaldu nion... Gaur egunera iritsi zaidan kezka da hau oraindik.

Azken denboran ikasten ari naizena zera da, egia gehienak direla erlatiboak, egoeraren irakurketa beti egina dagoela faktore batzuk kontutan utzita eta beste batzuk kanpoan utzita. Beraz, ikasi dut bidean goazela "arrazoi partzialak" hartuta. Ze erremedio, arrazoi guztia izatea ez dakit posible izango den gizakiarentzako eta. Aldiz, arrazoi partzialek bere lana egiten dute, beren mesedea.

Adintsu berean, parranda batean, Potxe txikiri esaten nion: Hi, buruarekin egin daitekeena ikaragarria dek, dena aztertu dezake, ondorio guztiak atera ahal ditu, dena jakin dezake... begiratu ninduen eta esan zidan: Hi gaizki hao! Momentuan sekulako danbatekoa zen hori niretzat, ez ninduela ulertzen iruditzen zitzaidan...

Gerora sarri oroitu dut momentu hura, zergatik esan ote zidan hori... bera ere ez dakit ohartu zen bere jakintzaz... Gaur egun ikus dezaket momentu hartan fede asko nuela buruan baina oso gutxi entzuten nuela bihotzez (kanporaka eta barruraka), instintuan ere arreta gutxi neukala. Beraz, buruko jakintzarekin bakarrik nahiko erren nebilen, Potxe ohartu zen horretaz.

Noski, hau ere arrazoi partzial bat da, aurrekoa baino osatuagoa, aberatsago sentitzen naiz nire jakintzan. Bestalde, ohartu naiz ere eztabaidan ibiltzen naizela besteekin arrazoi partzialengatik, bakoitzak arrazoi osoa bagenu bezala. Iritziak errespetatzea zein den garrantzitsua ikusi dut, alferrikako borroketan ez aritzeko behintzat. Arrazoi partzial hau ere aztertzen jarraitzen dut, ea zer datorren!



Betelu



Betelu



Betelu



Betelu



Lekunberri



Lekunberri



Lekunberri



Lekunberri





emozioen munduan

● ● Lorea Zulet (Psikologoa)

Autozaintza

Bada modan jarri den maite dudan hitz bat: autozaintza. Paziente asko ditut kontsultan zaintzen ez dakitenak. Oso eroa dirudi, ezta? Hala eta guztiz ere, ez zaizu gertatu lanean dagokiona baino ordu gehiago egitea, ezin deskonektatu, energia eta denbora besteei eskaini, ezta horretarako energiarik ez duzunean ere? Tira, hau askoz ere ezagunagoa irudituko zaizue.

Horrela, autozaintza zer den eta terminoak zer eremu hartzen dituen argituko dugu.

Gertatzen zaigunari, pentsatzen dugunari eta sentitzen dugunari adi egoteko gaitasunari egiten dio erreferentzia autozaintzak, geure burua baliozkotzen eta babesten jakiteari, azken batean, ongizate fisiko eta psikologikoko estatua lortzeari. Ia ezer ez.

Ikus ditzagun autozaintzaren adierazleak hainbat eremutan:

Zaintza fisikoaren esparruan:

- Ariketa fisikoa: gizabanakoaren osasuna eta ongizatea mantentzen laguntzen duen edozein jarduera fisiko, gaixotasun fisikoak prebenituz eta osasun mentala bultzatuz.
- Elikadura: elikadura osasuntsua eta orekatua.
- Osasunaren kontrola: osasuna berrikusteko, mantentzeko eta hobetzeko egindako ekintza guztiak, hala nola azterketa eta proba medikoak, medikamentuen aginduen jarraipena.
- Ohitura toxikoak: alkoholaren, tabakoaren eta drogen kontsumoa...
- Loaren higiena: organismoarentzat beharrezkoak diren kalitatea eta ordu-kopurua errespetatzea.

Zaintza psikologiko/emozionalaren esparruan:

Norberaren burua zaintzeak etengabeko barne-elkarrizketa eskatzen du, eta, horren bidez, gure behar fisikoak, mentalak eta emozionalak ezagutu ahal izango ditugu. Azken batean, norberaren buruaz arduratzea, hau da, gure emozioak identifikatzea, gure iritziak defendatzea, besteei mugak jartzea, norberaren ongizateaz arduratzea, ekimenak eta norberaren erabakiak hartzea, gehiago komeni zaigula bereizten jakitea edo denbora eta energia nola inbertitu jakitea. Autozaintza emozionalaren aldeko praktikek eragin positiboa dute gure ingurunean eta besteekiko elkarerraginean.

- Emozio nagusiak: erreakzio psiko-fisiologikoekin batera, egoera jakin batzuei, pertsoneri eta abarri erantzuteko.
- Funtzionamendu kognitiboa: funtzio kognitiboak (memoria, arreta, pertzepzioa, hizkuntza, etab.) zaintzeari edo aldatzeari dagokionez.
- Autoestimua: bere buruaren balorazioa eta bere buruarekiko gogobetetze-maila.
- Aurre egiteko estrategiak: ondoez emozionalako egoerei aurre egiteko tresnak eta baliabideak. Eta laguntza eskatzea bakarrik aurre egin ezin diogun uneetan.
- Etorkizuneko proiektuak: helburuak izatea, lorpen-itxaropenekin.



Gizarte-arloan:

- Laguntza-sareak: senideak, euskarri emozionala, ekonomikoa eta soziala eman dezaketen lagunak.
- Aisialdia: norbanakoarentzat egokiak diren borondatezko jarduerak egiteko denbora erabilgarria.
- Aisialdiko eta aisialdiko jarduerak: entretenitzeko, dibertitzeko, erlaxatzeko eta motibatuzeko jarduerak.
- Interakzio soziala: lagunekin, senideekin, lankideekin.



Hona hemen autozainketak dakartzan onuretako batzuk:

- Autoestimua indartzea.
- Estres-egoerei aurre egiteko egokitzeko eta erantzun alternatiboak sortzeko gaitasuna.
- Jarrera baikorragoa.
- Produktibitate eta errendimendu handiagoa jardueretan.
- Bizi-kalitate hobea.

Horiek gure egunerokoan presente egon behar duten ohitura garrantzitsuak dira, baina garai batzuetan gauza bat edo bestea gurago dugu, denbora gehiago edo gutxiago dugu, edo emozioak erasokorragoak edo desatseginagoak dira, eta horren arabera norberaren zaintza ere desberdina izango da. Garrantzitsuena errudun ez sentitzea da, eta daukazuarekin zaudenean, ahal duzuna egitea.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri

Hondakin organikoen kudeaketa Araxes Garaiko Mankomunitatean

Araxes Garaiko Mankomunitatea 2020an hasi zen hondakin organikoak konpost bihurtzeko baliabideak herritarren eskura jartzen. Geroztik, urtetik urtera gero eta herritar gehiagok egiten dute konposta; gaur egun, 130 familia inguruk. Halere, mankomunitatearen erronka da gutxienez herritarren % 60k kudeatzea modu horretan hondakin organikoak.

Kontsumo ohiturak aldatuz doaz, baita handituz ere, eta horrek, ezinbestean, gero eta zabor eta hondakin gehiago sortzea dakar. Hain justu, hori da gaur egungo gizartearen arazo larrienetariko bat: etengabeko hondakinen sorrera. Biztanleria kopuru geroz eta handiagoak, batetik, eta gaur egungo kontsumo ereduak, bestetik, geroz eta hondakin kopuru handiagoa sorrarazten dute, eta hondakin horien kudeaketa lehentasun handiko kezka edo gaia bihurtu da.

Hori dela eta, gizartean zein ekosistemetan eta biodibertsitatean kalteak saihesteko, tokiko administrazioek bi erronka garrantzitsu dituzte aurrean: prebentzioa-murrizketa bultzatzea, eta sortutako hondakinen kudeaketa eta tratamendua optimizatzea. Etxeko hondakinen artean, esanguratsua da materia organikoaren presentzia, sortutako hondakin guztien % 40 hartzen baitu, eta, bere ezaugarriak direla-eta, hondakin organikoak era desegokian kudeatzeak kalte handiak sor ditzake ingurumenean.

Etxeko hondakinen % 40 da materia organikoa

Hori hala, Europar Batzordeak hondakinen sorrera murrizteko eta horien kudeaketa hobetzeko lege sorta bat ezarri zuen.

Araxes Garaiko Mankomunitateak erronka honi heldu zion, eta, udalerriko kontzejuetan ekonomia zirkularra bultzatzeko asmoz,



tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA

• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

Atabal
okindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
SALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri
MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA
www.martillobixiki.com
679 938 016



udalerriko biztanleek sortzen duten hondakin organikoak beren etxeetan edota komunitatean konpostatzeko guneetan kudeatzea jarri zuen helburu. Erronka honek Betelu eta Araizko udalak, Araxes Garaiko Mankomunitatea eta Araizko udalerria osatzen duten kontzejuak elkarlan estu batean jarri ditu.

Hori horrela, mankomunitateak azken bi urteetan hainbat informazio kanpaina jarri ditu martxan, eta hitzaldi batzuk antolatu izan ditu, aditu baten eskutik.


Gero eta gehiago konpostatzen

Horrekin, 2020tik hona herritarrak geroz eta interes handiagoa izaten ari dira hondakin organikoak tokian bertan kudeatzeko sistema berri honen inguruan, eta gaur egun 130 familia inguru ari dira beren hondakin organikoak konpostatzen.

Hurrengo grafiko honetan, azken urteetan kudeatu diren hondakin organikoen tonen hobekuntza ikus daiteke:

Hala ere, Mankomunitatearentzat kopuru hori ez da nahikoa, sistema hau benetan eraginkorra izateko beharrezko baita gutxienez herritarren % 60k inguruk parte hartzea. Hori dela eta, Mankomunitateak kanpaineekin jarraituko du, eta biztanle guztiak bertan parte hartzera animatu nahi ditu.

Urtean kudeatutako hondakin organiko tona kopurua



Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

TAXI SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labeen egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

Construcciones Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri
construccionesganarbe@gmail.com

616 457 540
636 827 846

ABIAN DIRA LITERATURA GERALDIAK, ETA NEREA IBARZABAL LEKUNBERRIN IZANEN DA APIRILAREN 20AN, 'BAR GLORIA' BERE LIBURUA ARDATZ

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea eta herritarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea helburu harturik, besteak beste, beste urte batez literatura solasaldiak eta lantegiak antolatu dituzte udaberrirako Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak.

Guztira 12 saio antolatu dituzte, eta Lekunberrikoa apirilaren 20an izanen da: Nerea Ibarzabalek Bar Gloria bere liburuari hitz eginen du Mitxausenea kultur etxean, 18:30ean.

Hona hemen ekitaldi guztiak

Literatura solasaldiak

LIBURUA	HIZLARIA	LEKUA	EGUNA / ORDUA
Ez erran inori	Maddi Ane Txoperena	Iturmendi	Martxoak 14, 18:00
Bar Gloria	Nerea Ibarzabal	Lekunberri	Apirilak 20, 18:30
Bar Gloria	Nerea Ibarzabal	Arantza	Apirilak 27, 17:00
Bar Gloria	Nerea Ibarzabal	Etxaleku	Maiatzak 3, 19:00

Lantegiak

IZENBURUA	HIZLARIA	LEKUA	EGUNA/ ORDUA
Nola iruzkindu liburu bat?	Mikel Ayerbe	Lesaka	Apirilak 1, 10:00
Idazketa tailerra	Yolanda Arrieta	Leitza	Apirilak 19, 18:30

Hitzaldiak

IZENBURUA	HIZLARIA/ MUSIKARIA	LEKUA	EGUNA/ ORDUA
Irakurbide feministak euskal literaturan	Iratxe Retolaza	Arbizu	Martxoak 6, 18:00
Irakurbide feministak euskal literaturan	Iratxe Retolaza	Elizondo	Apirilak 19, 18:00
Egoerak eta liburuak	Joseba Sarrionaindia	Bera	Apirilak 21, 18:00
Idazleen gorputzak	Eider Rodriguez	Elizondo	Apirilak 26, 18:00
Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena	Miren Agur Meabe	Ziordia	Apirilak 26, 19:00
Egoerak eta liburuak	Joseba Sarrionaindia	Larraitzar	Apirilak 28, 18:00

Informazio gehiago

Araitz-Betelu-Larraun-Lekunberriko Euskara Zerbitzua (Ainhoa Beraza):

948 50 44 00 / larbeleareuskaraz@iparmank.eus

Sakanako Mankomunitatea (Castillo Suárez):

948464867 / euskara1@sakana-mank.eus



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AGENDA

MARTXOA

3 - Gurasotasun positiboa tailerra, Beteluko eskolan, 16:00etan. Parte hartzeko, Gizarte Zerbitzura deitu edo mezu bat bidali:

(948 600 694 edo ssbirurtzun.izabala@gmail.com).

4 - Gorritiko eta Gaintzako inauteriak.

Gaintza

11:00etan, puska biltza trikitilariekin

19:00etan, poteo herrikoa

21:00etan, afari autogestionatua

00:00etan, DJ Oixani

Gorriti

12:00etan, Kakamomo panpina egingo dugu

13:00etan, poteoa elkartean

14:30ean, Herriko Etxean bazkaria

Ondoren, bingoa eta soinu-joleak

19:00etan, herritik kalejira musikatua eta Kakamomo erreko dugu

21:00etan, herri afari autogestionatua

00:00etan, parranda

8 - Emakumeen Nazioarteko Eguna. Egitaraua, atzean.

11 - Printzan. *Osasun mentala eta gazteriaren bizi eredia* hitzaldia, 11:00etan.

19 - Lekunberriko 33. Krosa.

MERKATU TXIKIA

SALGAI

Leitzan 85m²ko pisua salgai, zaharberritzeko. Sukalde-jangela, egongela, komuna eta 3 logela bere armarioekin, balkoia eta ganbaran 8m²ko trastelekua. Ilogailua ere badauka. **Tif. 660 869 501**

24 - Mailoperen Batzar Orokorra, 18:00etan, Gabarin.

25 - Printzan. Nuei taldearen kontzertua, 23:00etan.

26 - Intzako teileriaren inaugurazioa, 10:30ean.

31 - Gatazken konponketari buruzko tailerra, Beteluko eskolan, 16:00etan. Parte hartzeko, Gizarte Zerbitzura deitu edo mezu bat bidali: (948 600 694 edo ssbirurtzun.izabala@gmail.com)

31 - Printzan. Jakoba Errekondo: urteko agendaren aurkezpena eta kontsultak egiteko aukera. 18:30ean.

APIRILA

1 - **Kaskamotz 2**, Uitzin

19:00etan, Kaskamotz kontzertua, elizan. Maitasun/EZmaitasun kontu eta kantuak (Sarrerak 8 euroan; Lekuonberri tabernan, Mitxausean eta Leitzako Kulunka dendan salgai).

21:30ean, kantu afari solidarioa Orixenean, Larraun Kantuzekin (Catering bidezkoa izanen da. Txartelak 30 euroan; Lekuonberri tabernan, Mitxausean edo Leitzako Kulunka dendan salgai).

24:00etan, Kaskamotz gaupasa DJ Oixanirekin.

KASKAMOTZ AFARIA

<i>MENUA</i>	<i>MENÚ</i>
<p>Hasierakoak mahai erdian</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iberikoak - Ahutz-gazta entsalada - Perretxiko eta onddo kremaz betetako hojaldeak <li style="padding-left: 20px;">Bigarrena - Txerri matrailak laranja erara <li style="padding-left: 20px;">Postrea Gazta eta intxaur flana 	<p>Entrantes al centro de la mesa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plato ibéricos - Ensalada de queso de cabra - Hojalde relleno con crema de hongos y setas <li style="padding-left: 20px;">Segundo plato - Carrilleras de cerdo a la naranja <li style="padding-left: 20px;">Postre - Flan de queso y nueces

Ardoa: Beltza, gorria eta txuria / Ura eta gaseosa / Kafea / Ogia / Kopa: Patxarana, Belerrak eta Baileys
Vino: Tinto Crianza, rosado y blanco / Agua y gaseosa / Cafe / Pan / Licore: Patxaran, hierbas y Baileys

APIRILAK 1 DE ABRIL

UITZI **30 €**

Intolerantzia/alerjaren bat baduzu jarri gurekin harremanetan:
Si tienes alguna intolerancia/alergia comunicanos:
dona.kaskamotz@gmail.com

Instagram: @kaskamotzsolidario
<https://kaskamotz.org/>

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia - 948 210 103

mailope@labrit.net

German Lasarte

ARBEONDO **HARATEGIA**

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ARAITZ-BETELU

Tximuutxe bilgune feministak antolatua

Martxoaren 3

Luze edo motz ikuskizuna, Azkaraten, 19:30ean

Martxoaren 8

Manifestazioa Arribetik Betelura, 19:30ean

Martxoaren 17

Cinco lobitos filma, Beteluko elkartearen, 19:30ean

LARRAUN-LEKUNBERRI

Larraungo Berdintasun Mahaia antolatua

Martxoaren 8

Manifestazioa Larraungo udaletxetik Lekunberriko udaletxera, 19:00etan

Martxoaren 11

Tera Pia bakarrizketa, Lorena Arangoaren eskutik, Gabari Gune Irekian, 19:00etan

Martxoaren 11

Emakumeen afaria Euskalduna tabernan, 21:30ean

Martxoaren 17

La fuente de las mujeres zineforuma, Etxarriko elkartearen, 18:30ean, 16 urtetik gorakoentzat

Martxoaren 23

Pintxo dastaketa Kattagorri elkartearen, 20:00etan
Data, ordua eta tokia zehazteko. Ameli ipuin kontaketa musikatua haurrentzat

Martxoak 24

Lekunberriko emakumearen zainketen diagnostikoaren aurkezpena, Arete Activaren eskutik, Lekunberriko udaletxean, 19:00etan

